

Donostiako Eskola Agenda 2030 egitasmoaren baitan 2024-2025 ikasturtean Donostiako Udalari zuzendutako ikasleen proposamenen erantzunak

1.- DBIZI_bizikleta alokairu sistemari buruzko eskaera / proposamenak

Udal bizikleten erabilera handitzeko leku gehiagotan jartzea. Donostiako erdigunean ugariak dira baina auzoetan ez:

- Bidebietan, Intxaurrondo eta Altzan adibidez oso aukera gutxi dugu.
- Bizikleta estazioa Lorean, Antiguoko frontoi inguruan, Igaran, Benta Berrin (J.C. Baroja plazan, Xalbador Bertsolari kalean...), Aieteko parkeaN, Grosen eta Ategorrietan.
- Baita Egia goialdean eta Plazaundin.
- Geltoki bat ere Loiolako Erriberako pasarelaren alboan, jende asko pasatzen da hortik hiriaren erdigunera joateko. o Bide batez, bizikleta estaziok eskolen inguruan egon daitezten eskatzen dugu.

Aipatutako auzoetan (Altzan hiru, Bidebietan bi, Intxaurrondon lau) banaketa orekaz egin da, populazio dentsitatea eta orografia kontuan izanda. Egia goikaldean eta behekaldean daude estazioak.

Antiguo, Benta Berri eta Lorea inguruan oso tarte motxean estazio asko daude. Zehazki Antiguoko frontoitik 250 metrora estazio bat dago (Satrustegi). Benta Berrin bata-bestearengandik 200 metro baino gutxiagoko distantzian 3 estazio daude (Sert plazan, Tolosa Hiribidean, Liburutegian).

Loiolako Erriberako pasarelatik 150 metrora estazio bat dago eta 250 metrora beste bat. Pasarelan bertan ez, baina oso metro gutxira bai.

Sistema ez dago pentsatuta lehen orduan joan eta azken orduan itzultzeko, joan-etorrietako mugimenduak hartzen ditu oinarri, bizikletak momentuoro mugimenduan ibili daitezten. Sistema bera orekatzen da hala, eguneko momentu puntual batzuetan furgoneta batekin lagundu egiten da estazioak berriro orekatzen, baina sistema mugimendu konstantean egoteko dago pentsatuta. Ikastetxeek eta zenbait lantokik eguneko lehen orduan eta arratsaldean dute mugimendua, eta gainontzean egun guztian zehar ez dago mugimendurik. Horrek sistema "kondenatu" egiten du nolabait, eta oreka galtzen du erabat.

Badakigu udal bizikleta elektrikoak erabiltzeko 16 urte izan behar direla. Gazteagoek ere nahiko genduke horiek ibiltzeko aukera izan (14-15 urtekoek). Batez ere, gure auzoetako aldapak ezin ditugulako igo gure bizikletekin. Eta bestelako bizikletak alokatzeko aukera DBHn izan dezagula, 12 urtetik aurrera.

Aseguru etxeak 16 urtetik gorako gazteak soilik onartzen ditu, beraz betebeharrak bat da guretzat.

Mugi txartelen bidez bizikletak alokatzeko aukera izatea

Aztertzen ari garen zerbait da.

Dbiziko geltokietan bizikleta erabilgarri gehiago egon daitezen eskatzen dugu eta hartzeko eta uzteko erreserbak egin ahal izatea.

- Bizikleta kopurua progresiboki handitzen ari da, eta elektriko gehiago jarriko dira martxan epe motzean.
- Erreserbak egitea ez da momentuz aztertu den aukera bat, baina mahaiaren gainean jarriko dugu hobekuntza aukera bezala. Zenbait hiritan egiten da, Bartzelonan adibidez, baina ez da aukera mugagabea. Eztazio batean gehieneko kopuru bat uzten du, adibidez 10 bizikletatik 2, eta erreserba egin denetik 5 minutura erreserba hori bertan-behera geratzen da. Hala ere, Dbusen aldetik jarraipena egiten ari gara esperientzia hau eta beste batzuen, eta momentuz, jaso dugun balorazioa ez da oso positiboa izan, erabilera okerra egiten delako. Alegia, erreserba asko ez dira gauzatzen, bizikleta jasotzera edo uztera ez direlako agertzen erreserba egin duten erabiltzaile horiek.
- Gainera, bizikleta uzteko tokirik ez badago, alternatibak ere eskaintzen dira, adibidez Geltoki + sistema, giltzarrapoa duten bizikleta elektrikoetan, geltokia beteta dagoenean bizikleta blokeatzeko.

2.- DBUS zerbitzuari dagozkio ekarpen / proposamenak

- Dbuseko aplikazioa hobetzea eskatzen da aldaketak edota arazoak dauden unetan.
- Orduategia eskoletako ordutegira moldatzea. Eskolara ezin dugu beti oinez edo bizikletaz joan, batez ere urruti bizi garenok. Garraio jasangarria sustatze aldera, ongi egongo litzateke Dbuseko autobusak ikastetxe guztietatik pasatzea, batez ere sarrera-irteera ordu nagusietan.
- Garraio publikoan oraingo deskontuak mantendu.
- Aplikazioa berritzeko prozesuan sartuta gaude, azken orduko informazioa eta plangintza zerbitzu erraz eta erabilgarri bat garatzeko. Epe ertainean martxan izango da.
- Orduategi oso zabalak dira, eta eskoletarako zein lantokietarako sartu eta irteteko orduetan zerbitzuak ahal den neurrian indartu egiten dira, baliabiden arabera. Dbusen sarea gaur egun oso-oso zabala da, eta erabiltzaileen gehiengoak du geltoki bat bere lantoki edo bizitokitik 200-300 metrora. Bai zuzenean bai transbordo bitartez Donostiako edozein txokotara iristea egingarria da.
- Uztailaren 1etik aurrera deskontuak jarraitu egingo dute, eta gainera zenbait hobekuntzekin: a) 15 urte bete arte bidaia doakoa izango da Mugi txartelarekin. Orain 12 urte bete arte da, eta b) Gazteen txartelarekin 15 eta 25 urte bitartekoek %50eko deskontuak mantenduko dituzte Mugi txartelarekin, eta 50. Bidaiatik aurrera dohainik.

Hirian dabilzan autobusak pixkanaka erregai ez kutsakorrez ibiltzeko moduan jartzea. Badakigu hibridoak eta elektrikoak badaudela. Eskatzen duguna da pixkanaka flota guztia osatzea.

2030erako Dbusen flotaren %100a izango da elektrikoa, hori da konpromisoa eta horretarako lanean ari gara. Dagoeneko ikus daitezke belaunaldi berriko autobus elektrikoak, 2025 urtearen bukaerarako flotaren herena dagoeneko elektrikoa izango da, eta gainontzekoa hibridoa. Gainera 2026rako BEI sistema martxan jarriko da, autobus guztiak %100 elektrikoak izango ditu linea honek.

DBus konpainiari, lehen zuen mailegu zerbitzua berreskuratzea eskatzen diogu, autobusen "alokairua" hiriko puntu batetik bestera joateko ikasleekin.

Momentuz ez da posible zerbitzu hori eskaintzea, ditugun baliabideak martxan dauden linea eta orduategiak indartzeko behar ditugu eta. Baina etorkizunera begira posible da berreskuratzea, betiere dugun eskaera maila arintzen bada. Kasu horretan agian baliabideak izan ditzakegu ikastetxeetako eskaerei erantzuna emateko, baina ez da posible autobusen erabiltzaileak geralekuan uztea eskolek zerbitzu espezifikoak eskatu dituztelako. Lehentasuna erabiltzaile orokorrak dute.

Bestetik, kontuan izan ikastetxeetako zerbitzu espezifikoak egin ez arren, ohiko lineak erabilgarri daudela, eta gainera uztailaren 1etik aurrera 15 urte bete arte luzatuko dela garraio publikoaren doakotasuna.

Autobusetan auzo altuetara igotzeko bizikletak onartzea, adibidez Herreratik Altzara joateko.

Herreratik Altzara igotzeko baimendua dago bizikletak autobusean sartzea, 13 linean adibidez. Baina ordutegi jakin batean eta gehienez bi bizikleta autobus bakoitzean. Neguan 9:00etatik 12:30era, 14:00etatik 17:00etara eta 20:00etatik 23:00etara.

Uztaila – Abuztuan: 9:00etatik 12:30era, 14:00etatik 18:00etara eta 21:00etatik 23:00etara. Informazioa bere osotasunean www.dbus.eus webgunean dago.

Oso ordutegi zabala da, baina jende gehien dabilen ordutegietan ezin da baimendu, autobusak oso beteta doaz eta bizikletak espazio handia behar du, segurtasun aldetik ere bere eragina du gainera.

Hainbat autobus lineatan maiztasuna handitzea:

- Orduerdiro pasatzen diren autobusen maiztasuna handitu, demagun Aiete eta Ibaetan.
- Altzatik zentrora autobusa maiz dago, baina beste lekuetara joateko aukera gehiago behar dituzte auzotarrek eta bertako adineko jendea gogoan izan, adibidez, Altzatik ospitalera garraiobide zuzenik ez dago.
- Bidebietan eskatzen dugu 14ak lehen zuen ibilbidea errekuaratzea, Trintxerpeko errotondan sartu gabe. Alferrikako denbora galtzen da horrela, eta gainera hurrengo geltokia oso gertu dago.
- Aieten 19 linea 15 minutuz behin eskaintzen da, Seminario zonaldean ere 15 minutuz behin eskaintzen da. 31 linea orduerdiro ematen da eta 35 linea orduro, baina beste lineekin konbinazioan maiztasuna egokia da egun Aieteko biztanleak eta bertako mugikortasuna kontuan izanda.
- Ibaeta eta Berio zonaldean 33 linea 20 minutuz behin eskaintzen da, eta Tolosa hiribidera jaitsiz gero hiriko zonalde askorekin lotura dago maiztasun handiarekin.
- Altzan maiztasun handiko zerbitzua dago 13 linearekin 5 minutuz behin, gainontzeko linea guztiekin konbinazioan. 31 lineak auzotarrak ospitalera eramaten ditu zuzenean. 13 lineak erdialdearekin konektatzen du, hiriko beste edozein zonaldekin transbordoak egitea ahalbidetuz.
 - Bidebietako linearen ibilbidea zonalde horretako bizilagunei zerbitzu duina eskeintzeko aldatu zen, eta oso erabaki positiboa izan da bertako bizilagunentzat. Ibilbide luzapen hori konpentsatzeko erdialderanzko norabidean ibilbide hobetu zen. Proba bezala aste batzuetan zehar geroak kendu, kendu genuen. Baina kexa ugari izan zen eta berriro ere jarri egin behar izan genuen.

- Kontuan izan Pasai San Pedro hiribidea aldapan dagoela eta zonaldean adineko jende asko bizi dela, biribilgunearen inguruan, eta beste linearik ez dutela hiriko erdialdera hurbiltzeko.

Guardaplatako arazoa konpontzeko, hau da bidean ibilgailu gutxiago elkartzeko, gure eskaera honako hau da: aldapa hasieran bizikletak aparkatzeko gune handi bat jartzea, ahal balitz estalia, eta maldan gora igotzeko autobusa izatea. Batez ere eguraldi txarra egiten duenean edo urtaro txarrenetan (udazkena, negua) eta sarrera-irteera ordu nagusienetan.

Ez da Dbusen plangintzan sartu genezaken ekimen bat. Ezin dugu ikastetxe jakin batentzat espezifikoki zerbitzu bat sortu, hori zerbitzu pribatua litzateke.

Bukatzeko, Egia auzoko helduen eskaera plazaratu nahi dugu (Egia Bizirik), hau da, 9 eta 42 lineak Bulebarrera iritsi daitezela.

9 eta 42 lineek Okendon dute gaur egun bere azken geralekua, Bulebarretik metro gutxira. Ordutegiak eta maiztasunak betetzen jarraitzeko aukera bakarra zen, linearen maiztasuna okertu gabe edo ibilbidean zehar geralekuak kendu gabe. Gaur egun maiztasuna eta ordutegien betetze maila asko hobetu da neurri honekin, eta gainera, bi lineekin Askatasunaren Hiribidean transbordoak egiteko erraztasun handia dago.

3.- BIDEGORRIEI buruzko ekarpen / proposamenak

Eskolara bizikletaz joateko bidegorri seguruak behar ditugu, soilik bizikletentzako direnak. Autoekin partekatzean beldurra pasatzen dugu, batez ere, trafiko handia dagoen bideetan. Adibidez:

- Aieten Jesuitinak ikastetxeko errotondatik Axular eta San Patricio ikastetxeetara
- Bidegorria eskoletaraino ere Antiguu, Ibaeta eta Zuatzun. Hemen daude Antigua-Luberri, Elaienea, Sto. Tomas eta Eskibel.

Hasteko azladu behar dugu, Donostiako Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planak garraibide ekologikoagoa, eraginkorragoa eta irisgarriagoa sustatu nahi duela biztanle guztientzat. Esparru horren barruan, bizikletaren estrategia hirian bizikleta-loturak hobetzeko funtsezko neurri gisa sortu zen, bizikleta garraibide osasungarri eta jasangarri gisa erabiltzea sustatuz. Ekimen honen helburua hiriko mugikortasuna eraldatzea da, Donostia txirrindularientzako eta ingurumenarentzako leku atseginagoa bihurtuz.

Gure ustez, erabat bananduta ez dauden bizikleta-konexioen tarteei errespetu handiagoa eman dezakete, baina materialki ezinezkoa da hiri osoan bidegorri bereziak eraikitzea, espazioa mugatua baita.

Aiete auzoko konexioen kasuan, PMUS-ak esan duen bezalaxe; "Aieteko bizikleta-ardatza, non Erdialdearen eta Oriamendiren arteko bizikleta-lotura potentzialeko zati asko desjabetze zailak eta obra garrantzitsuak dakartzate. Gaur egun, bizikleta-errei bat dago altueratik Aieteko anbulatorioetik Jesuitinetako biribilguneraino. Lehenetsuna emango zaio Jesuitinak eta Pagolakoa:

- Egikaritze-mailan, Pagolako biribilgunearen eta Mantuleneko biribilgunearen arteko tartea eta
- Azterketa mailan, Mantulene eta Jesuitinen biribilgunearen arteko tartea. Gabeko tartetean berezitako bidegorria erabiltzeko aukera, seinaleetika horizontala erabiliko litzateke galtzadatik zirkulatu beharreko bizikletak, eta arreta berezia jarriko da trantsizioen diseinuan galtzadako tarteen eta bidegorrien artean. "

Eraikita dagoen bidegorri-sarea ondo mantentzea eskatzen dizuegu ere. Zenbait lekuetan kolore bereizgarriak ez du (edo zuena galdu du) eta besteetan, oinezkoen bidetik banatzen duten marrak borrotuta daude. Istripuak gutxitzeko mantendu beharreko lanak dira. Bestalde, askotan inguruko landaredia asko hazi da eta bidegorria hartzen du arriskutsua bihurtuz eta ikusmena urrituz. Adibide batzuk aipatzearen:

- Frantzia pasealekuan, juzgaduen inguruan.
- Renfeko geltoki aurrealdeko bihurgunean
- Hegalak zentro inguruan

Bizikleta-bideen seinaleztapenari eta markaketari dagokionez, jakinarazi nahi dugu 2025. urte honetan zehar existitzen dela, eta Herriarren Partaidetzak egindako proiektu baten emaitza gisa, hondatutzat jo diren hiriko bide-zatien seinaleztapena eta balizak berritzeko aurrekontu espezifikoko bat baliatu da. Bestalde, eta bizikleta-bideak hobetzeko ere, Aurrekontu Parte-hartzaileen proiektuaren bidez, zoladura birjartzea eta hondatutako bizikleta-bideetako, auzoz auzo asfaltatzea onartu da baita.

Bestalde, Jakinarazi nahi dizuegu bazterbideak eta landaredia mantentzea, oro har, udaleko beste sail baten ardura dela, eta sail hori inausketak, bazterbideak garbitzea eta antzeko lanak egiteaz arduratzen dela. Hala ere, zure eskaera kontuan hartuko dugu, eta hitz ematen dizuegu, lan horiek egiteko unea iristen denean, jakinaren gainean egon zaitezten

Bidegorri sarea hobetzen jarraitzea eskatzen dugu. Adibidez:

- Gabriel Aresti pasealekuan dagoen bidegorria egokitzea eskatzen dizuegu. Bide hau Egiatik Intxaurrendora joateko erabiltzen da eta oso ibilbide arriskutsua da txirrindularientzat.
- Beste hainbat bizikleta bide jende askoren artean daude edota ibilgailuekin partekatuta eta arriskutsuak iruditzen zaizkigu.
- Jakin dugu BIDEGORRIAK MOTORDUN TRAFIKOTIK BABESTEKO ELEMENTUAK 2023ko aurrekontu partehartzailetan dagoen atala dela. Bidegorriaren eta galtzadaren artean elementuak instalatzeaz datza (adibidez, piboteak, hesiak eta abar), beharrezkoa den lekuetan, adibidez, San Martinen edo Kolon pasealekuan. Nola dago gaia?

Motordun trafikoa bizikleta-bideetatik bereizteko aipatutako elementuak, bai San Martín kalean, bai Colon pasealekuan, dagoeneko jarrita daude.

Bidegorri berrien proposamen gehiago:

- Miramon eta Amara-Loiola lotzeko.
- Ametzagainan ez dago bidegorriarik, orohar Egia auzoa aztertzea eskatzen dugu eta kalapiak egindako proposamena kontuan hartu, hau da, Egia kaletik Astiñeneko zubiraino.
- Altzan mugikortasun jasangarria bultzatzea eskatzen dugu, bidegorriak eta oinezkoentzako gune gehiago garatuz. Eta bertako ikasleak, bidegorrien proiektu bat diseinatu nahi dugu datorren ikasturtean udalari proposatzeko.
- Mirakruz zeharkatzen duen bidegorri luze bat egitea eskatzen dugu eta Ategorrietako galtzada zaharra peatonalizatzea eta bidegorri bat jartzea.
- Ondoko udalerriekin edota foru aldundiarekin hitz egin bidegorrien loturak egiteko herrien artean.

Lehenik eta behin, argitu nahi dugu hirian bizikleta-bideen garapen berrietarako, bereziki auzo batzuetan, aparkalekuari lekua kenduz soilik ezarri ahal izango dela, eta horrek auzo batzuetan nolabaiteko eztabaida sor dezake herriarren artean.

Halaber, lehen aipatutako Mugikortasun Planean, alternatibak aztertzea eta honako bizikleta-konexio hauen proiektua idaztea aurreikusten da:

Bidegorria José María Salaberrian, Amara Berriko Espazio Publikoa Hobetzeko Planarekin bat etorriz, kale horretan oinezko/bizikleta/auto bizikidetza hobetzeko beharra jasotzen duena.

- Aiete, Onkologikoa eta Anoeta arteko bizikleta-lotura aztertzea, bizikleta-lotura bermatu behar duena. Ospitale-eremuko erabiltzaileentzat eta langileentzat lehiakorra izatea, baldin eta eragin negatiborik ez badute mugikortasun sanitarioan. Donostialdeko ESIren Mugikortasun Planarekin etorkizunarekin kontrastatu beharreko neurria, gaur egun idazten ari dira.
- Mirakruz – Ategorrieta – José Elozegi alkatearen arteko bizikleta-lotura eta lotura aztertzea.
Nafarroa etorbidean dagoen bidegorriarekin.
- Sarrietakoko oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealekua Txomineneako ibai-parkearekin lotzea aztertzea.

Amaitzeko, Altzako proiektuaren kasuan, zuen proposamenaren zain egongo gara aztertu ahal izateko.

4.- BIDE SEGURTASUNARI dagokion ekarpen / proposamenak:

Eskaera orokorrak direnak, ondokoak dira:

- Seinaleen, espaloien eta lurreko baldosen mantenu jarraia egitea.
- Itsuentzako dauden seinaleak (zebra-bide bereziak, semaforoak...) egokitzen jarraitzea, auzoetan ere.
- Ikastetxeen aurrean trafikoa nolabait erregulatu. Sarreretan eta irteeretan normalean trafiko gehiago pilatzen da eta auto batzuk espaloian aparkatzen dute. Adibidez, sarrera-irteeretan soilik garraio publikoari baimendu pasoa.

Sentsibilizazio kanpainak egin:

- Ikasle eta familientzat segurtasun programak garatu.
- Oinbus kanpainak maizago egin ikastetxeetan.
- Donostiako udaltzaingoa eskaintzen zuen hezkuntza formazioa berrabiaraztea.
- Donostiako mugikortasun plana modu didaktikoan ikastetxeetan lantzeko materiala egitea.
- Bizikletan ibiltzeko kontzientziazio kanpainak egitea.

Hiriaren mantentze-lanei, baldosei, espaloiei eta abarrei dagokienez, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Departamentuarekin koordinatuko gara eta zuen eskariei erantzungo diegu, haiek egiten baitituzte.

Semaforoetan instalatutako itsuentzako gailuei dagokienez, ONCEren eta itsuen kolektiboen eskaerekin bat eginez instalatzen eta mantentzen jarraituko da.

Eskola-inguruneei dagokienez, hiriko bost puntutan ere esku hartu dugu, eskatzen diguzuen zentzuan, haurren sarrera eta irteeretan autoei bidea moztuz, oso erresutatuta onekin, Jakintza ikastolan, Herrera ikastetxean, Orike ikastolan, besteak beste, baina zentzu horretan zuek lagundu beharko dizkiguzue, autoz mugitzen diren familiak (gurasoak) baitira ildo horretan laguntzen ari ez direnak. Beraz, ikastetxeetako zuzendaritzetatik proposamen zehatzak helarazten badizkiguzue, elkarrekin martxan jar ditzakegu.

Eskola-inguruneetako segurtasunari buruzko sentsibilizazio-kanpaina bati dagokionez, Agendako ikastetxeak eta Eskola Ekintza Planaren Kontseilua osatzen dutenak elkartzea ere gustatuko litzaiuke.

Amaitzeko OINBUSAREN jarduerari dagokionez, oso aukera interesgarria izango litzateke irailean MUGIKORTASUNAREN ASTEAREN testuinguruan antolatzea Eskola Mugikortasunaren Ekintza Plana eta 2030 Agenda osatzen duten ikastetxe guztien artean.

Altza-Intxaurrondo:

- Altza BHIko eskolaren inguruan mugikortasun agentea egotea.
- Bestalde, Lorete eta Berra bidean, landareak asko hazten dira eta bidea oztopatzen dute oinezkoen segurtasuna gutxituz. Garbiketa maizago egitea eskatu nahiko genuke.
- Altza eta Antxo lotzen duen bidea eta eskaileretan segurtasuna indartzea.

Espaloiak eta oinezkoak oztopa ditzaketen solairuak mantentzeko dagokionez, lorezaintza arduratzen den sailari jakinarazten diogu Lorete eta Berran aipatzen duzuen garbiketa egin dezala.

Altzako institutuko sarreraren egoerari dagokionez, informazio gehiago beharko genuke agente baten beharrari buruz, trafiko-egoera edo herritarren segurtasunik eza den ulertzeko; izan ere, trafikoko agenteak arduratzen dira lehenaz, eta udaltzainak bigarrenaz.

Illo horretan, zuen kolaborazioa izatea gustatuko litzazuke, Institutuan autoa erabiltzeko ordezeko formulak alternatiboak landu ditzazuen eta familiekin eta irakasleekin partekatu ditzazuen.

Antiguo-Ibaeta:

- Manuel Lardizabal pasealekuan, oinezkoen segurtasuna bermatzeko: espaloia zabaltzea eta koskak baxuagoak izatea, kimika fakultate atzean semaforoa jarri, barandilak jarri eta Elaienea eskola pasa eta gero dagoen kurba itxian ispilua jarri.
- Berio pasealekuan abiadura moteltzeko neurriak hartzea.
- Xalbador Bertsolarian ere espaloiak zabaltzea eta kalea erdi-peatonalizatzea eskatzen dugu.

Manuel Lardizabalen espaloiei dagokienez, ia kale osoko espaloiek 3 metro baino gehiago neurtzen dute, unibertsitateekin bat etorritik. Egia da kalea Elaienea eta Santo Tomas Lizeorantz igotzen denean espaloiak estutu egiten direla. Puntu horretan, inguruan obra berri bat egiteko aukera bilatu da, espaloiak handitzeko, eta hala helarazi zitzaion Hirigintza Sailari, berak baimendu behar baitu obrarako lizentzia eta urbanizazio-betebeharren artean sartu. Hala ere, ez dakigu zergatik ez duten gauzatu.

Xalbador Bertsolariaren kaleari dagokionez, kale osoa oinezkoentzako bihurtuz gero, auzorako aparkaleku ugari kenduko lirateke. Hori dela eta, aztertzen ari garena da (aparkaleku-plazarik kendu gabe) institutuaren sarrerako espaloia zabaltzea, dagoen aparkaleku-zerrenda horretatik aldentuz eta oinezkoentzako sarbideari lasaiagoa emanez.

Bidebieta: Herri Ametsa ikastolara eta San Luis La Salle ikastetxera iristeko dagoen bidearen azken aldapa hori (Guardaplata bidea) arrisku handikoa da:

- Igotzeko dauden eskailerrak oso baldintza txarretan daude. Sasiak janda egoten dira eta euria eginez gero, oso labainkorrak dira. Bazterrak garbitu eta baranda bat jartzea beharrezkotzat jotzen dugu.
- Espaloia oso estua da. Sarrera-irteera orduetan autobus ugari elkartzen dira eta askotan pasatzeko lekurik gabe geratzen gara.
- Batez ere neguan ingurua iluna geratzen da. Argiztapen gehiago beharko luke.

Aipatu dituzuen zentzura sartzeko eskailerei dagokienez, jabetza pribatua denez, jabeari dagokio garbiketa, Udalak ezin baitu bere gain hartu. Argiztapenari dagokionez, berriz ere dagokion departamentuari jakinaraziko diogu, argiztapen gehiago jartzeko aukera balora dezan.

Egia-Zentro-Loiola: Presentación de Maria ikastetxe ingurua ez da ziurra ikasleentzako, batez ere inguruko beste ikastetxeetako autobusak sarrera aurrean geratzen direlako irteera bat dutenean bertako ikasleen segurtasuna oztopatuz. Autobusen horien kokapena ezin da mugitu?

Ez dugu oso ondo ulertzen zer esan nahi duten Presentación de Maria sarrera segurua ez dela esaten dutenean. Iztuetaren inguru osoa aldatzeko lanak espaloien tamaina hirukoiztu du, oinezkoentzako bidegurutzeen ikuspena handitu du eta inguruko trafikoa baretu du. Ikastetxearen aurrealdean beste ikastetxe batzuetako autobus-geltokiren bat badago, horrek, a priori, ez du eraginik haren segurtasunean, gurutzatzea semaforoak arautzen baitu

Riberasen ematen diren hainbat arazo:

- Zentzura doan bidean (Cristina Enea parkearen alboan) argitasuna behar da, ez da segurua hortik pasatzea.
- Hainbat semafororen iraupena luzatu beharko litzateke. Adibidez, gizarte segurantz aurrean dagoen zebra-bidea bi zatitan dago eta ezinezkoa da alde batetik bestera zuzenean pasatzea erdian gelditu gabe.
- Abiadura erregulatzeko neurri gehiago behar dira.

Santa M^a elizatik Orixe ikastolarako bidea garbia eta segurua nahi dugu. Kaleak zikinak egoten dira, batez ere astelehen goizetan eta Errealeko partidua eta gero. Horretaz gain, txakurren jabeak gehiago kontzientziatu behar ditugu.

Ados gaude, baina mugikortasunak puntu honetan ezer gutxi egin dezake.

Aitor ikastola inguruan:

- Konkorronea 7 kalean zebra-bide berri bat jartzea, Aitor ikastolatik Tejeria kalera daramaten eskaileren parean, familientzako pasabide naturala delako.

- Kale berean, zamalanak egiteko aparkalekua jartzea, 8:30 – 15:30 ordutegian, jangelako kamioiak lekua izateko eta horrela oinezkoen segurtasuna bermatuko litzateke.

Oinezkoen pasabide berriari dagokionez, Tejeria kaleko eskailerei irteera emango dien oinezkoentzako pasabide berri bat irekitzeko aukera teknikoak aztertzen ari gara, nahiz eta kale bereko arrapalaren irteeran metro batzuk beherago dagoenak irisgarritasun-araua betetzen duen.

Gros-Ategorrieta:

- Zurriola Ikastolako bidean, Soroa ondoan semaforoaren denbora oso laburra da eta ez digu denbora ematen errepidea gurutzatzeko. Semaforoaren iraupena luzatzea nahiko genuke.
- Ategorrietako erlojuko bidegurutzetan bisibilitate falta dago.
- Mirakruz kalean, Nafarroa hiribidea eta Kolon pasealekuan ibilgailuen abiadura murrizteko neurri eraginkorrak jartzea.

Ategorrietako oinezkoen pasabidearen denborari dagokionez, zaila da azaltzea. Oinezkoentzako pasabide horretan bi ibilbide ezberdin elkartzen dira: hirira sartzen diren ibilgailuenak eta hiritik irteten direnenak. Horregatik, denbora desberdinak dituzte, eta, horregatik, oinezkoentzako bi pasabideak ere berde jartzen dira une desberdinetan.

Semaforoaren programaziotik denbora horiek egokitzeko ditugun aukerak aztertzen ari gara, biek ahalik eta denbora gehien bat egin dezaten eta, horrela, oinezkoek espaloi batetik bestera igaro ahal izan dezaten.

5.- BIDE-SEGURTASUNAri buruzko ikasleen ekarpen / proposamenak:

Hiri osoan eta batez ere, auzoetan, orokorrak izan daitezkeen eskaerak bildu ditugu. Horretaz gain, ikastetxe inguruetan trafiko arazo handia dagoela ondorioztatu dugu, kotxez ingurutzen diren familiek sortutakoak eta arrisku handiko uneak sortzen dira.

Gure aldetik KONPROMETITZEN gara arauak betetzera eta seinaleei kasu egitera, baina udal ordezkariari ondoko eskaerak egin nahi dizkizuegu:

- Eskaera orokorrak eta hiri mententzen eta zerbitzuei dagokienak, honakoak dira:
- Seinaleen, espaloien eta lurreko baldosen mantenu jarraia egitea.

Udal mantentze-zerbitzuek etengabe lan egiten dute bide publikoan gertatzen diren kalteak konpontzeko. Era berean, berritze-obrak egiten dituzte, mantentze hutsa nahikoa ez denean bide publikoa egoera onean mantentzeko. Hala ere, ezinezkoa da momentuan bertan bide publikoan egon/sortu daitekeen akats txiki bakoitza antzematea. Hori dela eta, gure kaleak egoera onean mantendu ahal izateko, herritarren laguntza beharrezkoa da gertatzen diren kalteez ohartarazteko. Gainera, mantentze-lan horietarako dagoen dirua ez da mugagabea, eta horrek esan nahi du lehentasuna eman behar zaiela jarduera batzuei, premiazkoenak diren lanetan dirua inbertituz eta, beharrezkoak izan arren, herritarrentzat berehalako arriskurik ez dakarten beste jarduera batzuk atzeratuz.

Altza-Intxaurrondo auzoari dagozkion eskaerak:

- Lorete eta Berra bidean, landareak asko hazten dira eta bidea oztopatzen dute oinezkoen segurtasuna gutxituz. Garbiketa maizago egitea eskatu nahiko genuke.

Eremu horretan, urtean 7 ebaki dituzten defentsak egiten dira; gauza bera egiten da eskalantegitik loreterako eskaileretan. Nahiz eta 7 mozketako maiztasuna programatuta dagoen, aurten dagoeneko 5 egin ditugu eta azkena urriaren 10ean izan zen. Urtero 7ra iristeko ahalegina egingo da, landaredia espaloira edo eskaileretara irten ez dadin eta arazorik gabe igaro dadin oinezkoa.

Bidebieta auzoari dagokion eskaera:

- Herri Ametsa ikastolara eta San Luis La Salle ikastetxera iristeko dagoen bidearen azken aldapa hori (Guardaplata bidea) arrisku handikoa da.
- Igotzeko dauden eskailerak oso baldintza txarretan daude. Sasiak janda egoten dira eta euria eginez gero, oso labainkorrak dira. Bazterrak garbitu eta baranda bat jartzea beharrezkotzat jotzen dugu.
- Batez ere neguan ingurua iluna geratzen da. Argiztapen gehiago beharko luke.

Bidearen hasieran eskailera batzuk daude, erabilerak sortutako pasabide batetik datozenak, eta urbanizatzea oso erraza dena, bizilagunek berdeguneetan egiten dituzten pasabide guztiak hormigoiz estaltzea saihesten baita. Eskailera horiek alternatiba bideragarria dira eguraldi ona egiten duen egunetarako, baina euria egiten duen egunetan urbanizatu gabeko bidea dira. Nolanahi ere, eskailera horiek berrikusiko ditugu, hobetzeko zerbait egin ahal izateko. Eskailera horiek egurrezko baranda bat dute, eta gaur egungo kontserbazio-egoera aztertuko dugu.

Landarediari dagokionez, eremu honetan 4 mozketako maiztasuna dugu eta aurten 2 aldiz bakarrik moztu da (azkena 2025/09/03an). Kontuan hartuta ia sarbide bakarra dela, gutxienez 6ra igoko dugu maiztasuna, eta, gainera, errepaso bat emango dugu ea egiten ez den edo programatuta ez dagoen eremuren bat dagoen.

Egia-Zentro-Loiola auzoari dagozkion eskaerak:

- Riberasen Zentrora doan bidean (Cristina Enea parkearen alboan) argitasuna behar da, ez da segurua hortik pasatzea.

Cristina Enea parkeko argiak araudiak eskatzen dituenak dira Hala ere, zenbait tokitan, parkeko zuhaitzek farolak pantailaratzen dituzte, eta itzalak sortzen dituzte, argiztapen horren errendimendua murrizteko. Irtenbide posible bakarra landaredia murriztea izango litzateke, baina horrek balioa kenduko lioke Kristina-Enea parkea bezalako berdegune berezi bati. Ez da aurreikusten farola gehiago jartzea, parkeko zuhaitzak larriki kaltetuko litzuketen kanalizazio berriak egitea ekarriko lukeelako. Era berean, ez da aurreikusten gaur egun instalatuta dauden farolen intentsitatea handitzea, bi arrazoiengatik: lehenengoa da argiteriari buruzko araudia zorrotza dela eta argi-mugak igotzea eragozten duela, energia xahutzea dakarrelako. Eta, bigarrena: pantailen kasuan, intentsitatea handituz gero, are handiagoa da argiztatutako eremuen eta landarediak ilundutako eremuen arteko aldea, eta horrek, lurra ikustea erraztu beharrean, are gehiago zailtzen du eremu ilunak ikustea, eta, are gehiago, oinezkoak itsutu ere egin ditzake.

- Santa M^a elizatik Orixe ikastolarako bidea garbia eta segurua nahi dugu. Kaleak zikinak egoten dira, batez ere astelehen goizetan eta Errealeko partidua eta gero. Horretaz gain, txakurren jabeak gehiago kontzientziatu behar ditugu.

Enpresa arduradunari jakinarazi zaio arreta berezia eskaini behar diela puntu horiei.